



SDEIBAR

Boto  
elektronikoari  
buruzko ohiko  
galderak

# Boto elektronikoa emateko plataforman sartzea

**Boto elektronikoa emateko prozesua**  
**2019/11/02an irekiko da eta 2019/12/07aren**  
**23:59ak arte egongo da eskuragarri. Hauek**  
dira boto elektronikoa emateko aukerak:

- \_ <http://www.sdeibar.com/eu/akziodunak>  
webgunearen bitartez, norbere burua akziodun gisa identifikatuta. Bertan, IFZ (NAN edo IFK) eta **boto elektronikoa abiarazi aurretik posta elektronikoz jasoko dituen** ID eta pin-kodea sartu beharko ditu akziodunak.
- \_ Eibar Fan Club webgune ofizialaren bitartez, **nire kontua** atalean. Bertan, izena emandako akziodunek plataformarako sarbide zuzena izango dute, gakorik sartu gabe.

## Aurretiko eskakizunak

Boto elektronikoa emateko zerbitzua baliatu nahi duen akziodun orok ondorengo elementuak sartu behar ditu aldeztu aurretik gure datu-basean: **telefono-zenbaki bat, jaiotze-data eta posta elektronikoko helbide bat.**

Adingabeen kasuan, gainera, legezko tutorearen ifz eta izen-abizenak jakinarazi beharko dira. Entitate juridikoen kasuan, legezko administratzaile edo ordezkariaren ifz eta izen-abizenak jakinarazi beharko dira. Hildako gisa identifikatutako akziodunek ezin dute boto elektronikoa emateko sistema erabili.

S.D. EIBAR, S.A.D. sozietateak bere akziodunen esku jarri duen sistemak telefono-zenbakiaren bitartez egiaztatzen ditu boto elektronikoak. Horrenbestez, akziodunek **berrespen SMS** bat jasoko dute, emandako botoen trazabilitatea eta segurtasuna bermatzeko.

# Ez dut nire sarbide kodea jaso

Baliteke gure datu-basean zure posta elektronikoa, IFK, IFZ edo AIZ txarto erregistratua izatea. Datu hori eskuratzeko, hau egin dezakezu: Ipuruako Estadioan zuzenean eskatu, bazkideei eta akziodunei arreta emateko bulegoan, edo mezu elektronikoz eskatu, [accionistas@sdeibar.com](mailto:accionistas@sdeibar.com) helbidera bidaliz identitatea egiaztatzeko beharrezko agiriak.

## Badago igorritako boto bat egiaztatzeko modurik?

Igorri aurretik, SMS push bitartez jasotako sei zenbakiko kode baten bitartez egiaztatu behar duzu botoa. Kode horren bitartez botoa egiaztatu eta gure sistemetan erregistratu ondoren, SMS ziurtatu bat jasoko duzu, botoaren laburpenarekin, konfiantzazko hirugarren baten eskutik, zeinak, aldi berean, akziodunak botoaren laburpena jaso duela egiaztatzeko ziurtagiri bat igorriko duen.

Batzarra egituratu aurretik, notariotzak boto elektronikoko guztien zerrenda bat jasoko du. Beraz, zure botoa egiaztatu dezakezu Notario andreak gordezten eta ikuskatzen duen dokumentazioan.

# Adingabekoen boto elektronikoa

Adingabekoek ezin dute boto elektronikorik igorri legezko tutorearen baimenik gabe. Legezko tutorearen ifz eta izen-abizenak zuzenean jakinarazteko, hau egin dezakezu: Ipuruako Estadiora joan eta bazkideei eta akziodunei arreta emateko bulegoan datuak zuzenean eman, edo mezu elektronikoz bidali, [accionistas@sdeibar.com](mailto:accionistas@sdeibar.com) helbidera igorritz tutorearen identitatea eta titularitatea egiaztatzeko beharrezko agiriak.

Datu horiek jakinarazi eta Klubak agiriak onartu eta gero, adingabeak botoa bidali ahal izango du IDrekin, PIN kodearekin eta mugikor-zenbakiarekin bere burua identifikatuta, eta WEBGUNEAN, ID, PIN kodea eta IFZ erabiliz. Bere burua identifikatu ondoren, sistemak legezko tutorearen ifz eskatuko dio eta sartutako zenbakia gure datu-basekoarekin bat egiten badu, boto elektronikoa eman ahal izango du.

# Entitate juridikoen boto elektronikoa

Entitate juridikoek ezin dute boto elektronikorik igorri legezko administratzailearen edo ordezkariaren baimenik gabe. Legezko administratzailearen edo ordezkariaren ifz eta izen-abizenak zuzenean jakinarazteko, hau egin dezakezu: Ipuruako Estadiora joan eta datuak eman bazkideei eta akziodunei arreta emateko bulegoan, edo mezu elektronikoz bidali, [accionistas@sdeibar.com](mailto:accionistas@sdeibar.com) helbidera igorritz legezko administratzailearen edo ordezkariaren identitatea eta titularitatea egiaztatzeko beharrezko agiriak.

Datu horiek jakinarazi eta Klubak agiriak onartu eta gero, entitateak botoa bidali ahal izango du, WEBGUNEAN bere burua identifikatuta, ID, PIN kodea eta IFZ erabiliz. Bere burua identifikatu ondoren, sistemak legezko administratzailearen edo ordezkariaren ifz eskatuko dio eta sartutako zenbakia gure datu-basekoarekin bat egiten badu, boto elektronikoa eman ahal izango du.

# Badago igorritako boto bat baliogabetzeko edo aldatzeko modurik?

Zure botoa aldatzeko bazkideei eta akziodunei arreta emateko bulegora jo behar duzu eta bertan botoaren aldaketa eskatzeko agiri bat aurkeztu, sinatuta eta titulartasuna egiaztatzeko beharrezko dokumentazioarekin batera, botoaren zentzua eta zuzendu beharreko puntu guztiak adierazita.

Botoa baliogabetzeko bazkideei eta akziodunei arreta emateko bulegora jo behar duzu eta bertan botoa baliogabetzea eskatzeko agiri bat aurkeztu, sinatuta eta titulartasuna egiaztatzeko beharrezko dokumentazioarekin batera.